

zein esperantza daukan  
oraindik gure txalopatxoak,  
egunak, ibarrak  
zure ta nire zeruan.

7. Azurmendi

## BIZITZA BEHERA

Uberkak darama

bide jakin bat

uberka behera,

arriak behera,

zelaiak behera.

Zumarraren itzala behera

bide jakin bat eta

beharrezkoa.

Jainkoaren beatzetatik

askatzen doan

fatuaren ari.

Bideren batetik behera.

Ezin konpreniturik

begiratzen genuen

umeak ispiluan bezela.

Doa gure bizitza norabait

ain ximple ta errez

labaintzen xehe

urteak behera...

Axolagabeki

bihotzak behera.

Udazken udaberri behera

otsik egin gabe

edurra kristal ostean bezela.

